

Eskatzaileak ADIERAZTEN DU:

1.- Eskatu edo lortu dituela helburu berbererako diru-laguntzak, diru-sarrerak edo beste baliabide batzuk, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik datozenak BAI/EZ

BAI erantzunez gero, eskaeraren edo ematearen kopia erantsi behar duzu.

2.- Dirua itzultzeko edo zigortzeko prozeduraren batean dagoela edo prozedura hori ireki diotela, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoren batek emandako diru-laguntzen barruan oraindik tramitazio-fasean dagoen prozeduraren batean hain zuzen ere BAI/EZ

BAI erantzunez gero, prozeduraren hasieraren kopia erantsi behar duzu.

3.- Diru-laguntza publikorik ezin jaso izateko zigorra ezarri diotela zigor- edo administrazio-bidetik edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren bat duela, sexu-diskriminazioa egin izanagatik gertatu diren zigorrak edo debekuak barne, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerakoak, azken xedapenetatik seigarrenean zehaztutakoaren arabera. BAI/EZ

BAI erantzunez gero, zigorraren edo debekuaren kopia erantsi behar duzu.

4.- Diru-laguntza emateko orduan exijitzen eta kontuan hartzen diren baldintzetakoren bati eragiten dion edozein aldaketa Ikerketaren Arloko Errektoreordetzari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela, baita beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen aldetik helburu berbererako diru-laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak lortu baditu ere.

5.- Eskaera honetan agertzen diren datuak egiazkoak direla, eta bere gain hartzen dituela eskaeran ager daitezkeen datu ez-zehatzen ondoriozko erantzukizunak.

Sinatuta:

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorrituz, deialdiko parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, «Ikerketa» izeneko fitxategi batean sartuko dira, diru-laguntzen deialdi hau kudeatzeko eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko (fitxategi hori 2010eko urriaren 4ko Aginduan araututa dago -2010eko azaroaren 5eko EHAA-). Fitxategi honen organo arduraduna Zientzia Politikarako Zuzendaritza da. Datuen aurka egin, datuetan sartu eta datuak zuzendu eta ezabatzeko eskubideak Zientzia Politikarako Zuzendaritzan baliatu ahal izango dira. Hartarako, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Zientzia Politikarako Zuzendaritzara jo beharra dago (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).